

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2019 Foru Dekretua, irailaren 24koa. Onestea Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren 2019-2023 legealdirako.

Aipatutako foru dekretuak Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saila sortu zuen, hasiera batean ondoko eskumen hauek esleiturik dauzkana:

- Teknologia garapena, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna.
- Ekonomia sustapena eta enpresa lankidetzeta.
- Lurraldea sustatzea eta garapen logistikoa.
- RSI3 estrategia lurraldean zabaltzea.
- Industria azpiegiturak eta zerbitzuak garatzea.
- Enpresa ekintzailletza.
- Nazioartekotzea eta kanpo merkataritza.
- Ekonomia garapen jasangarriko estrategiak despokatze arriskuari aurre egiteko.
- Ordenamendu juridikoak ezartzen dituen gainerako guztiak.

Aginduzko izapide guztiak era positiboan beterik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Esleitutako jardun arloak

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren 2019-2023 legealdirako. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari, Foru Aldundiak dauzkan eginkizun eta lan arlo hauek esleitu zaizkio: teknologia garapena, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna, ekonomiaren sustapena eta enpresen lankidetzeta, lurraldea sustatzea eta garapen logistikoa, RSI3 estrategia lurraldean zabaltzea, industria eta zerbitzu azpiegiturak garatzea, enpresa ekintzailletza, nazioartekotzea eta kanpo merkataritza, ekonomia garapen jasangarriko estrategiak despokatze arriskuari aurre egiteko, eta ordenamendu juridikoak adierazten dituen gainontzekoak.

2. artikulua. Sailaren egitura

Aurreko artikuluan adierazitako jardun arloei dagozkien eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailean honako unitate organiko hauek bereiziko dira, erantsitako organigramarekin bat etorriz, eta guztiak saileko titularrak den foru diputatuaren zuzendaritzapean egongo dira:

Diputatuaren menpean:

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza.

Demografia Erronkaren Zuzendaritza.

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren menpean:

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua.

3. artikulua. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari atxikitako entitate, erakunde eta organoak

Hona hemen Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari atxikita dauden erakunde, sozietate eta entitateak, bakoitzak Entitateen Erregistroan daukan identifikazio zenbakiarekin:

ENTITATE ZK.	IZENA
87	Araba Garapen Agentzia SA
104	Naturgolf SA
384	Arabako Lurralde Historikoan lurralde oreka bultzatzeko eta despobulatzea galarazteko Erakunde arteko Mahaia
384.1	Arabako Lurralde Historikoan lurralde oreka bultzatzeko eta despobulatzea galarazteko Sail arteko Batzordea

4. artikulua. Diputatuaren eginkizunak

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak (Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena) 40. artikuluan foru diputatuari esleitzen dizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere, zeinak foru dekretu honen 1. artikuluan zehazten baitira.

Gainera, Trebiñuko enklabearekin eta gai horri buruz Gaztela eta Leongo erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin loturiko ekimen guztiak dagozkio.

5. artikulua. Zuzendarien eginkizun orokorrak

Zuzendariari dagokie 52/1992 Foru Arauak (Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarena) 75. artikuluan ezartzen dituen eginkizunak burutzea. Zehazkiago:

1. Bere gain dituen unitate organiko guztien eta bestelako erakundeen jardunak planifikatu, zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea; eta, horretarako, haien barne funtzionamenduaren araubidea ezartzea.

2. Xedapenen proiektuak egitea eta proposatzea, ezarri den jarduteko politikaren arabera.

3. Saileko foru diputatuari laguntza teknikoa ematea hark eskatzen dizkien gai guztietan.

4. Zuzendaritzaren aurrekontua prestatu, proposatu eta kontrolatzea, bidezko diren aurrekontu aldaketak izapidetzea eta gastu programak ebaluatzea.

5. Zuzendaritzako bulegoen barne araubidearen arduraz izatea eta zaintzea; eta haren ondare higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

6. Beren saileko diputatuak eskuordetzaz esleitzen dizkien eginkizunak betetzea.

7. Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak

Dekretu honetan arloaren arabera zehazten diren eginkizunak gainera, administrazio unitateen buruek eginkizun orokor hauek dituzte:

1. Beren ardurapeko administrazio unitateari buruzko gaiak zuzendu eta kudeatzea eta beren eskumenerako gaiak ebazteko proposamenak prestatzea.

2. Haien nagusia den zuzendariari eta, hala badagokio, saileko foru diputatu titularrari laguntza teknikoa ematea, kasuan kasuko unitatearekin loturiko arloetan.

3. Unitatearen urteko aurrekontu proposamena eta jardueren memoria gertatzea.

4. Langileez hornitzeari buruzko proposamenak egitea eta beren langileen zuzeneko buruzagitzan aritzea, besteak beste eginkizun hauek dituztela:

- ordutegia betetzen den kontrolatzea,
- baimenak eta lizentziak kontrolatzea,
- zereginak eta lanak banatzea eta gainbegiratzea, eta haiek betetzeaz erantzule izatea.

5. Unitateko bulegoen barne araubideari arreta eskaintzea eta zaintzea, eta haietako ondasun higigarriak eta higiezinak administratzea eta zaintzea.

6. Finkatutako helburuak lortzearen erantzule izatea.

7. Ahalik eta laguntza handiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenari, loturiko eginkizunak bere gain hartuko dituen zuzendaritzako administrazio unitateari.

8. Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak.

7. artikulua. Kontratazio mahaia

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailean kontratazio mahaia iraunkor bat eratzen da, sail honek bere eskumenen esparruan prozedura irekiaren edo mugatuaren bidez egiten dituen kontratu guztietarako.

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: kontratazioa proposatzen duen zerbitzua bere menpean duen zuzendaria, edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: kontratazioa proposatzen duen zerbitzuaren burua edo berak eskuordetzen duen pertsona arituko da idazkari lanetan.

Mahaikideak: bi funtzionario, kontratazioa proposatzen duen zerbitzua edo Sail bereko beste zerbitzu bat ordezkatzeko dutenak.

Bi mahaikide, kontratazio organoaren lege aholkularitza eta kontuhartzaitza dagozkien administrazio atalek izendatuak.

II. KAPITULUA. EKONOMIA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

8. artikulua. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak (Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena) 75. artikuluan eta horrekin zerikusia dutenetan zuzendariei esleitzen dizkien eskumen orokorrek erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere.

Gainera, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzari berariazko eskumen hauek ere badagozkio:

1. Honako hauek bultzatzeko ekintzak eta ekimenak proposatzea eta gainbegiratzea:
 - Teknologia garapena eta enpresa berrikuntza Araban.
 - Lehiakortasunaren garapena.

- Ekonomia garapenerako programak eta planak.
- Ekintzaileei laguntzea.
- Enpresak nazioartekotzea eta lurraldeko ekonomiaren kanpo sustapena.
- Finantzaketa eta inbertsio berriak erakartzea.
- Industria, teknologia, hezkuntza eta zerbitzu azpiegiturak garatzea.
- Lehiakortasunerako azpiegitura logistikoak garatzea.
- RIS3-Euskadi estrategia zabaltzea lurraldean.

2. Araban ekonomia eta gizarte aldetik oso sustraiturik dauden erakundeekin lankidetzaren hitzarmenak egin daitezzen proposatu eta bultzatzea, ekonomia garatzeko programa eta planen ondorioak indartzeko helburuarekin.

3. Gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informaziorako sarbidea bultzatzea, Aldundiari dagozkion gaitan.

4. Bere eskumeneko gaitako jarraibideak ematea.

9. artikulua. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a. Ekonomia jardueraren garapena eta Arabako produkzio ehunaren gaurkotzea eta dibertsifikazioa babestu eta bultzatzea oro har, eta bereziki industrian, logistikan, kultura industria sortzaileetan, ardoarekin loturiko ekonomian eta enpresentzako zerbitzuetan, besteak beste.

b. Teknologia garapena eta enpresen berrikuntza babestu eta bultzatzea, honako gai hauek jarraituz: planak diseinatu, gauzatu, kontrolatu eta ebaluatuz: ikerkuntza, teknologia garapena eta berrikuntza (I+G+b), teknologia transferentzia, informazio teknologia berrien erabilera, jakintzaren kudeaketa eta ekonomiaren digitalizazioa.

c. Ekonomia sustatzeko, enpresen arteko lankidetzarako eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko programak eta planak prestatu, gauzatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea, oro har.

d. Lehiakortasunerako azpiegitura logistikoen garapena babestea eta bultzatzea: Gasteizko aireportua, salgaien intermodala, Arasur-Jundiz-Aireportua ardatza, beste jarduketa batzuen artean.

e. RIS3-Euskadi estrategia lurraldean zabaltzen laguntzea eta hura bultzatzea: fabrikazio aurreratua-4.0 industria, energia eta biozientziak, arlo hauekiko ekintzak babestuz: zibersegurtasuna, garapen farmazeutikoa, energia biltegitratzea, bai eta lurraldearentzat interesa duten beste garapen sektorial eta teknologiko batzuetan ere.

f. Arabako enpresen garapena eta lehiakortasuna bultzatzen dituzten industria, teknologia, hezkuntza eta zerbitzu azpiegituren garapena babestu eta bultzatzea.

g. Enpresa berriak sortzen laguntzeko programak diseinatu, kudeatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea; baita ere, ekintzaile jardura babesteko eta bultzatzeko ekintza espezifikoak sustatzea.

h. Nazioartekotzerako eta kanpo merkataritzarako programak eta planak prestatu, gauzatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea, baita ere lurraldeko ekonomiaren kanpo sustapena. Nazioarteko sustapen misioetara joatea.

i. Ekintza espezifikoak lankidetzakoak diseinatu eta garatzea, lurraldean enpresa inbertsio berriak ezartzeko.

j. Lehendik dauden zein sortu berriak diren enpresentzako finantzaketa tresnen sorrera eta garapena babestea eta antolatzea.

k. Zuzendaritzarentzat ekonomia garapenaren eta berrikuntzaren arloko memoria eta txostenak egitea; baita ere, zuzendaritzaren aurrekontuen aurreproiektua prestatzean parte hartzea, haren gauzatzea kontrolatu eta izapidetzea, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin harremanak izatea, eta Zuzendaritzako programei esleitutako EBko funtsak kudeatzea.

l. Ekonomia garapenerako ekintzak egiteko erakunde publiko nahiz pribatuekiko lankidetzak hitzarmenetako eta laguntza lerroak onartzeko espedienteak proposatzea eta izapidetzea, eta Zerbitzuak sustatzen dituen kontratazio espedienteak izapidetzea.

m. Zuzendaritzari esleitu zaizkion sustapen sozietate publikoetan zuzendaritzak egiten dituen jardunak kudeatzea.

n. Zerbitzuaren jardunerako beharrezkoak diren datu baseak eta informazio iturriak diseinatzea, ezartzea, kudeatzea eta eguneratzea.

o. Zerbitzuko espedienteak kudeatu, kontrolatu eta izapidetzea administrazio, aurrekontu eta kontabilitate esparruei dagokienez, eta, oro har, zuzendaritzan egindako jardueren ondoriozko administrazio prozesuetan laguntzea (horien artean, bidegabeko ordainketak itzultzeko prozeduren kudeaketa, eta Zuzendaritzaren aurrekontuaren aldaketak izapidetzea eta haien jarraipena).

p. Agirien sarrera eta irteera erregistroa izapidetzea, aztertuta eta kontrolatuta erantsita dakarten dokumentazioa zerbitzuan edo zuzendaritzan banatzeko; espedienteak artxibatu eta zaintzea; eta zuzendaritzaren xedapen orokorrak aldizkari ofizialetan argitaratzeko izapideak egitea.

q. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren eskumen diren gaietan politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen balioespina kudeatzea, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak (Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarena) xedatutakoaren arabera.

r. Oro har, Araban ekonomia jarduera indartu, sendotu eta dibertsifikatzeko helburuak lortzen laguntzen duten ekintza guztiak.

III. KAPITULUA. DEMOGRAFIA ERRONKAREN ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

10. artikulua. Demografia Erronkaren Zuzendaritza

Demografia Erronkaren Zuzendaritzari dagokio abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak (Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena) 75. artikuluan eta horrekin zerikusia dutenetan zuzendariei esleitzen dizkien eskumen orokorrak erabiltzea, bai eta sail horri dagozkion eginkizunen eta jardun arloen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere.

Gainera, Demografia Erronkaren Zuzendaritzari ondoko eskumen zehatzak ere erabiltzea dagokio:

a. Biztanleria urrikoak irizitako eremuetan, zeinak demografia erronkari aurre egiteko Arabako Lurralde Historikoko Plan Estrategikoan ezarriko baitira Europako zuzentarauei jarraituz (gaur egun, 12,5 biztanle/km²), edota Euskal Autonomia Erkidegoak edo Estatuak ezartzen dituzten beste arau batzuei.

– Demografia erronkari aurre egiten laguntzen duten foru sektore publikoaren politikak proposatzea, sail eskudunekin lankidetzan eta Arabako Lurralde Historikoko Plan Estrategikoa oinarritzat hartuta.

– Aukera berdintasunaren aldeko neurriak proposatzea.

– Demografia erronkari aurre egiteko Arabako lurraldeko plan estrategikoan zehaztutako eremuetan jarduera ekonomikorako erabiliko diren etxebizitza eta eraikinen eskaintza eta birgaikuntza indartzea, beste erakunde eta sail eskudun batzuekin lankidetzan.

– Demografia eta biztanleria gaietako foru eskumenak garatzea.

– Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak mekanismoak sustatzea garapen ekonomikoaren arloan, despopulatutako landa inguruneko eremuetarako.

- Herritar guztiei oinarrizko zerbitzuak behar den bezala emango zaizkiela ziurtatzea, sail eta administrazio eskudunekin lankidetzan.
- Biztanleria gaietako plangintza estrategikoa, Nazio Batuen 2030 Agendaren ildoan.
- b. Konektibitatea eta digitalizazioa lurralde osoan, Europako 2020 Agenda Digitalarekin bat etorritz.
- c. Gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informaziorako sarbidea bultzatzea, Aldundiari dagozkion gaietan.
- d. Arabako Lurralde Historikoko udalerrien despopulatzeari loturiko neurriak kudeatzea; hain zuzen, "Lurralde orekarako ekimenak 2017" programakoak.
- e. Bere eskumeneko gaietan jarraibideak ematea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.

a. Zuzendariak kanpoan, gaixorik edo aldi baterako ezinduta egotekotan, abstenitzekotan edo errefusatu egotekotan beraiek ordeztuko araubidea Gobernu Kontseiluaren irailaren 24ko 43/2019 Foru Dekretuan (Foru Aldundi honetako sailtako zuzendariak ordezkatzeko araubidea onartzen duena) edo haren ordeztuko araudian ezarritakoa izango da.

b. Administrazio unitateen arduradunak aldi baterako ez badaude edo egon ezin badute, uztailearen 31ko 82/1997 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, buru duten zuzendaritzako arduradunak erabakitzen duen hark beteko ditu haien eginkizunak. Berariaz zehaztu ezean, eginkizun horiek unitatean administrazio kategoriarik altuena daukan langileak beteko ditu eta langile bat baino gehiago izanez gero, antzintasun handiena duenak.

Salbuetsita geratuko dira araudi propioa duten kasuak.

Bigarrena.

Uztailearen 6ko 6/1989 Legeak (euskal funtzio publikoarena) 18.3. artikuluan ezarritakoa betetzeko, xedapen honetan ezartzen den egitura organikoak lanpostuen zerrendan eragiten dituen aldaketak funtzio publikoaren alorrean eskuduna den erakundeak jasoko ditu, lanpostuen zerrendan unean uneko egoerari buruz aldizka eguneratutako informazioa daukan agiri batean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Demografia Erronkaren Zuzendaritzari administrazio unitaterik atxikitzen ez zaion bitartean, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren buruak hartuko ditu bere gain Foru Dekretu honek 6. artikuluan ezarritako administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak, Zuzendaritza honen esparruan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Foru dekretu hau indarrean egongo da Foru Gobernu Kontseiluak onartu eta hurrengo egunetik aurrera, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren,

Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA